



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

86. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Otsaila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Harrera eta diploma-banaketa EMEKIN programan parte hartu duten emakume ekintzaileei**

Otsailaren 28an egin dute EMEKIN programan parte hartu duten emakumeei aitortpena egiteko ekitaldia. Programa hori Gipuzkoako Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak bultzatzen du eta emakume gipuzkoarren artean ekintzaitza bultzatzea du xede.

EMEKINEK aholkularitza eta laguntza eskaintzen die enpresa-ekimena duten emakumeei. Horren arabera, bideragarritasun-plana egiten laguntzen diete eta jardueraren lehen urteetako lana gainbegiratzen dute. Programa horren bidez, gainera, finantza-laguntza ematen diete.

7 urteko ibilbidean, EMEKIN programaren onurak ezagutu dituzte 660 emakumek eta 270 enpresa sortu dituzte. Baina azken urteotan, 2012an eta 2013an, krisiaren erdi-erdian, izan du onarpen maila handiena programak.

EMEKINEK nazioarteko erakundeen aitortpena jaso du eta Europako Egitura Funtzen Berdintasuneko Politiken Sareak jardunbide on gisa katalogatu du. Eta, joan den urtearen amaieran, ELGAK ekintzaitza arloko 34 jardunbide onenen artean sartu zuen.

Gipuzkoako Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak finantzatzen ditu ekintza horiek. Kudeaketa-lanez ASPEGI, Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte, arduratzen da Laboral Kutxaren laguntzarekin.

Informazio gehiago:

<http://www.emekin.net/web/default.asp?idioma=eu>



> Oarsoaldea Euskal Eurohirian sartu da

Euskal Eurohiriko Batzarrak onartu du Oarsoaldea sartzea eta, horren bidez, Baiona eta Donostia arteko hiri-korridorea osatu dute.

"Baiona-Donostia Euskal Eurohiria" mugaz gaindiko lankidetzaproiektuaren helburua hiri-korridore hori egituratzea eta Europako hiri "berria" sortzea da. Metropoli-espazio horretan, azpiegiturak, hiri-zerbitzuak eta gobernu-tresnak elkarrekin sortuko lirateke.

Oarsoaldea gehituta, Euskal Eurohirian honako udalerrri hauek sartuko lirateke: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia. Horien azalera 111,4 km²-koa da eta, guztira, 71.200 biztanle biltzen dituzte.

Oarsoaldea gehitzeko ekitaldian izan dira beste agintari batzuek gain, honako hauek: Euskohiriko diputatu nagusia eta presidenteordea, Martín Garitano; Jean Grenet eta Jon Peli Uriguen, Eurohiriko gerenteak; Hendaiaiko alkatea, Jean-Baptiste Salaberry; Biriatuko alkatea eta Euskal Iparraldeko Elkargoko presidentea, Michel Hiriart; Donostiako alkatea, Juan Karlos Izagirre; Irungo alkatea, José Antonio Santano; Lezoko alkatea eta Oarsoaldea eskualde-garapeneko agentziako presidentea, Ainhoa Zabalo; eta Errenteriako alkatea, Julen Mendoza.

Informazio gehiago:

<http://www.oarsoaldea.net>

<http://www.eurohiria.org>



> Europa hobetu egin da berrikuntza arloan, baina oraindik ere desorekak daude kide diren estatuen artean

Europar Batasuneko berrikuntzari buruzko txostenaren (Innovation Union Scoreboard -IUS) azken emaitzen arabera, nahiz eta Europak berrikuntzan aurrera egin duen eta Estatu Batuekin eta Japoniarekin alderatutako posizioa berreskuratu duen, kide diren estatuen arteko aldeak oraindik ere handiak dira.

Txostenaren arabera, Europar Batasun barruan duen sailkapen orokorra nahiko egonkorra da. Suedia dago lehen postuan eta, ondoren, Danimarka, Alemania eta Finlandia. Hau da, ikerkuntzan eta berrikuntzan inbertsio gehien egiten duten lau herrialdeak.

Oro har, berrikuntzako hobekuntza bultzatu du Europako marken eskaeretan zein EB kanpotik etorritako doktoretzako ikasleen kopuruan izan den igoerak. Dena den, arrisku-kapitaleko inbertsioak izan duen jaitsierak bilakaera positibo hori geldiarazi du.

Espainiak errendimendu berritzailea hobetu duen arren, Europako sailkapenean 16. postutik 17.era igaro eta "neurritzko berritzaileak" diren herrialdeen artean kokatu da.

IUS adierazlearen edizio berriak 25 adierazle erabili ditu (joan den urtean 24 izan ziren). Aurten gehitu dutena hazkunde bizkorreko enpresa berritzaileetako enplegua izan da konpainia mota horien enplegu guztizko kopuruarekin alderatuta. Horren helburua ekonomiaren dinamismoa neurtzea da eta berrikuntzan oinarritutako jardueretarako egitura-aldaketarako gaitasuna azpimarratu dute bereziki.

IUS-aren adierazle guztiak hainbat dimentsiotan sailkatuta daude: giza baliabideak, ikerketa-sistemak, finantzak eta laguntza, enpresetako inbertsioa, ekintzailetza eta abar. Adierazle horien bidez, sailkapena sortzeko erabiltzen den indizea kalkulatu ohi dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/files/ius/ius-2014_en.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> 2014ko Europako Lurralde Lankidetzako Europako Eguna: "*Parteka ditzagun mugak, gertura gaitezen gero eta gehiago*"

Europako Lurraldeen arteko Lankidetzako programek (CTE) eta hari lotutako programek datorren irailean ospatuko dute (irailaren 21etan) Lankidetzako Europako Eguna. Leloa "Parteka ditzagun mugak, gertura gaitezen gero eta gehiago" izango da eta, irailaren 21aren aurreko astean, Europa osoan, tokiko ehunka ekimen antolatuko dute milaka pertsona elkartzeko asmoz.

Kanpainaren helburua mugaz gaindiko Europako lankidetzan izandako lorpenak herritarrei jakinaraztea da.

Kanpaina INTERACT Programak koordinatuko du eta Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren eta Eskualdeen Batzordearen laguntza jasoko du. Horren arabera, Europako Lurralde Arteko eta Kanpoko Mugetako Lankidetzako Programei eta interesa duten alderdi guztiei egin diete kanpaina esku hartzeko gonbita horretarako ekintzak antolatuz eta/edo proposatuz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/pdf/europeancooperationday2014.pdf



> “Sinplifikaziorako Europako Panelak” Europar Batasuneko finantzaketa-arauak soiltzeko 120 neurri biltzen ditu

Europako Batzordeak “Sinplifikaziorako Europako Panela”-ren behin betiko bertsioa onartu du. Panelak Europar Batasuneko finantzaketa-arauak soiltzeko 120 neurri baino gehiago biltzen ditu honako hauei zuzenduta: Europako enpresak, hiriak, eskualdeak, zientzialariak eta gobernu kanpoko erakundeak. Onartutako neurrien helburua EBko funtsak eskatzeko lanak erraztea eta soiltzea da.

2014-2020 Hainbat Urterako Finantza Esparrua eta sektoreko finantzaketa-programak onartzearekin batera, azken hilabeteotan asko aurreratu dute Europar Batasuneko funtsetarako sarbidea onuradun izan daitezkeenei errazteari dagokionez. Dena den, Batasuneko eta kide diren estatuetakoko erakundeek sinplifikazioa lortzeko neurriak betetzen jarraitu behar dute. Horretarako, ezarri beharreko neurri teknikoak hartu beharko dituzte.

Onartutako Panelak neurri multzo handiagoa jaso zezakeen, baina Batzordeak aipatutakoaren arabera, hori ezinezkoa izan da kide diren estatuak ezarritako salbuespen kopuru handia dela eta. Horrek zaildu egin du neurrien panel handiagoa garatzea.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/transparency/regdoc/rep/1/2014/EN/1-2014-114-EN-F1-1.Pdf>

http://ec.europa.eu/budget/mff/simplification/index_en.cfm



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **"Connecting Europe" tresnak garraio, energia eta zerbitzu digitalen esparruetan sareen garapena babestuko du**

"Connecting Europe" tresnaren helburua Europa barneko sareen arloan inbertsioak arintzea da honako sektore hauetan: energia, garraioak eta telekomunikazioak. Era berean, sektore publikoko zein pribatuko funtsen faktore biderkatzaile gisa ere lan egin nahi du. Europar Batasuneko hazkunde-agendako oinarrizko elementua da eta epe luzera begirako hazkunde-potentziala handitzea du xede.

"Connecting Europe" ekimena Europar Batasuneko aurrekontuko gainerako esku-hartzeekin batera koordinatuko dute; honako hauekin, adibidez: "Horizonte 2020" ekimena, eta Kohesio eta Egitura Funtsak. Zehazki, "Europa lotzea" aurrekontua 50.000 milioi eurokoa da 2014-2020 aldirako; zenbateko horretatik 31.694 milioi euro garraio-azpiegituretarako erreserbatuta daude; 9.121 milioi euro energiara; eta 9.185 milioi euro telekomunikazioetara.

Garraio arloan, "Connecting Europe" tresnak helburu hauek dituzten interes komunekin proiektuak babestuko ditu: itoguneak desagerraraztea eta osatu gabe dauden loturak eraikitzea, garraio iraunkorak eta eragingarriak bermatzea epe luzera begira, garraibideen arteko integrazioa eta konexioa optimizatzea, eta garraio-zerbitzuen arteko elkarreragingarritasuna sendotzea.

Energiari dagokionez, honako helburuak dituzten interes komunekin proiektuak babestuko dituzte: energiaren barne-merkatuaren integrazio handiagoa eta sare elektrikoaren eta gas-sarearen elkarreragingarritasuna. Horrez gain, Batasuneko hornikuntza-segurtasuna sendotzeko ekintzak eta garapen iraunkorra eta ingurumenaren babesa lortzen lagunduko dutenak lagunduko dituzte. Zehatzago esanda, sarean energia-iturri berriztagarrien integrazioa bultzatuko dute.

Telekomunikazioen arloan, helburua banda zabaleko sare lasterren eta ultralasterren hedapena bizkortzea eta horiek abian jartzea da (bereziki, ETE-er dagokienean). Lineako Estatu mailako zerbitzu publikoen elkarreragingarritasuna eta interkonexioa, eta sare horietarako sarbidea ere babestuko dute.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/digital-agenda/sites/digital-agenda/files/cef.pdf>



> Lurralde Lankidetzako Europako Taldeek Europa 2020 Estrategia garatzen betetzen duten rolaen inguruko hausnarketa egin dute

Lurralde Lankidetzako Europako Taldeek (LLET) urteroko bilera egin zuten otsailaren 18an Bruselan eta bertako gai nagusia erakunde horiek Europa 2020 Estrategia ezartzeko eta garatzeko prozesuan bete beharko duten rola izan zen.

Europako Batzordeak 2006an ezarri zuen Lurralde Lankidetzako Europako Taldeen (LLET) figura juridikoa sortzeko ekimena. Komunitate mailako lankidetzatresna da eta haren helburua kide diren estatuen edo haien eskualdeko edo tokiko agintaritzen arteko mugaz gaindiko, nazioz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzatresna erraztea eta bultzatzea da.

LLETen urteko topaketak LLETen arloko egungo egoeraren inguruko ikuspegi orokorra partekatzeko balio izan du. Horrez gain, 2014-2020 programazio-aldi berrian tresna horiek jasoko dituzten erronkak eta aukerak landu ahal izan dituzte. Arreta berezia jarri dute joan den urtearen amaieran argitaratu zuten LLETen araudi berrian; izan ere, orain arte indarrean egon den araudiko alderdi garrantzitsu batzuk aldatu ditu araudi berriak.

Ekitaldiaren baitan antolatutako mahai-inguruetan, egindako eztabaidak gai hauen ingurukoak izan dira: makroeskualdeko estrategien rola, LLET jakin batzuek bultzatutako estrategia espezifikoak, hiri-dimentsioa eta URBACT programa, besteak beste.

Informazio gehiago:

<https://portal.cor.europa.eu/egtc/en-US/Pages/welcome.aspx>



> Europar Batasuneko neguko aurreikuspenek susperraldi ekonomikoak aurrera jarraituko duela iragarri dute

Europako Batzordeak egindako azken aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko kide diren estatu gehienetan eta Batasun osoan susperraldi ekonomikoak jarraipena izango duela iragar daiteke. Aurreikuspen horien arabera, susperraldia handitzen ari da Europan eta barneko merkatuetako eskaria sendotu izanak hazkunde orekatuagoa lortzen lagunduko du. Horri, gainera, lehiakortasuna handitu izana gehitu behar diogu.

Batzordeak onartu duenez, susperraldia oraindik txikia da eta beharrezkoa da erreforma ekonomikoekin aurrera jarraitzea susperraldia sendotu eta enplegua sor dadin.

2014an, langabezia-tasa Europar Batasunean % 10,4koa izango dela kalkulatu dute, eta % 11,7koa Eurogunean. Dena den, kide diren estatuen arteko aldeek iraungo dutela aitortu dute. Balantza fiskalei dagokienez, aurten estatuetakoko defizit fiskalak murrizten jarraituko duela aurrez ikusi dute. EBn BPGarekiko % 2,7ra arte jaitsiko dira, eta % 2,6ra arte Eurogunean.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/eu/forecasts/2014_winter_forecast_en.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Otsaila

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> 2014-2020 Kohesio-politika: egungo egoera (Panorama aldizkaria)

Europako Batzordearen Eskualde Politikako Zuzendaritzak argitaratutako Panorama aldizkariaren neguko edizioaren gai nagusia 2014-2020ko Kohesio Politika berria izan da eta zehatz-mehatz aztertzen du alderdi interesdun guztientzat horrek izango duen eragina. Eskaintako elkarrizketa eksklusiboan, Europako Batzordeko presidentea, José Manuel Barroso, Kohesio Politikak hazkundera eta enplegua sortzen nola lagunduko duen eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak nola lortuko dituen azaldu du.

"*Beren hitzetan*" izeneko atalean, kide diren estatuetako, eta Europa osoko eskualdeetako eta elkarteetako ordezkariak partekatu dituzte Kohesio Politikaren erreformaren inguruan dituzten iritziak eta 2014-2020 programazio-aldi berrirako itxaropenak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag48/mag48_en.pdf

> Europako Gizarte Eredua: etorkizuneko aurreikuspenak (Javier Bilbao Ubillos)

Europako gizarte-ereduaren etorkizunari buruzko eztabaida plurala, kritikoa eta irekia bultzatzeko asmoz, EUROBASKEK UNIVERSITAS sariaren beste edizio baterako deialdia egin zuen joan den urtean. Orduko izenburua honako hau izan zen: Europako Gizarte Eredua: etorkizuneko aurreikuspenak XXI. mendeko erronka ekonomikoen, geopolitikoen, demokratikoen eta demografikoen aurrean.

Ikerketako proiektuen, edukia reneta atxikitako dokumentazioaren inguruko bozketa egin ondoren, epaimahaiak, aho batez, XII. Francisco Javier de Landaburu Universitas saria proiektu honi ematea erabaki zuen: Javier Bilbao Ubillosek egindako 8. zenbakia: "Europako Gizarte Eredua: osagaiak eta bideragarritasuna aurkako testuinguruan".

Bilbao Ubillosen lanak Europako gizarte-ereduaren (MSE, gaztelaniaz) definizioa eta karakterizazioa proposatzen ditu, baina aldagai argiak daudela eta EBren baitan gizarte eta erakunde mailako testuinguru heterogeneotasuna gero eta handiagoa dela onartzen du. MSErako aurrez ikusitako hainbat testuinguru aurkezten du hipotesi-aukera hauen arabera: komunitateko esku-hartze espezifikorik ez izatea edo esku-hartzea izatea.

Informazio gehiago:

http://eurobask.org/ficherosFTP/LIBROS/UNIVERSITAS_2013.pdf



> Europa 2020 Estrategia. Tokiko eta eskualdeetako agintarientzako 2014ko eskuliburua (Eskualdeen Batzordea)

Eskualdeen Batzordeak Europa 2020 Estrategiako helburuak lortzeari dagokionez tokiko eta eskualdeetako agintarientzako Eskuliburuaren beste edizio bat argitaratu du.

Europako tokiko eta eskualdeko erakundeek Europa 2020 Estrategia betetzen laguntzeko moduari buruzko informazioa jasotzen du dokumentu horrek. Benetako jardunbide egokien adibideak jasotzen ditu eta dagoen informazio eskuragarriaren ikuspegi orokorra, finantziario-baliabideak eta Europa 2020 Estrategiarekin lotutako bestelako tresna politikoak eskaintzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/en/documentation/brochures/Documents/delivering-europe-2020.pdf>